

URDAIBAI

MAGAZINE ONLINE

2015
zenb. 02

AQUA ALTA BUSTURIALDEAN

- | GERNIKA JAI ALAI FRONTOIA
- | ARROLAKO OPPIDUM-A
- | RAMONA JATETXEA
- | SALTSA GUZTIETAKO PERREXILA
- | STA. KATALINA MAKAILAO TXAPELKETA

GU URDAIBAI

BIRMOLDAKETAREN SASOIA DA

Kokapen geografiko aparta, Kultura berezia, izaeradun komunitatea, jende lehiatsua, ausarta eta segurua, errotua eta ibiltaria, sustriak, itsaso eta mendia maite dauan lur emankor eta aberatsa. Busturialdea dogu. Baina ezer ez da betiko, jagoten ez bada. Ingurumenaren hondamena, negutegi efektua, aldaketa klimatikoa, eguneroko kontuak dira. Danon beharra da aurre egitea eta mugatzea. Ez da nahikoa neurri globalakaz, nazioarteko foroetan hartzen direnekaz. Atmosferara isurtzen dana, gehiegizko trafikoa, ingurumena errespetatzen ez dauan jarduera ekonomikoa, ibaien kutsadura eta ondorioz fauna eta flora hondatzea, uraren erabilpen arduragabea, erregai fosilak erabiltzea, paisajea, ibai ertzeetan, paduretan egiten dana... pertsonak, enpresek, taldeek, gizarteak egiten dau. Hazi egin gara baina zelan pentsatu barik.

Errespetatu daigun garena

Solidariteta eta ardura bateratua beharrezkoak dira aldaketa klimatikorik ez izaten laguntzeko. Busturialdean bizi eta behar egiten dogunok ingurunea errespetatzen dabenean ohitura koherenteak hartzeko ardurea daukugu. Ezagutzaren, berrikuntzaren eta informazioaren garaian bizi gara. Hemendik aurrera bakoitzak edo danok batera egiten dogunok arduratsua eta eroangarria izan behar dau. Mugikortasun jasagarriak, aurrerapen energetikoak, ura aurrezteak, lurraldearen zama ahalmenak... presa garbiak, paisajea barrizteak eta ondare kulturala, naturala eta historikoa, egiturazko elementuak izan behar dabe Busturialdea garatzeko.

Busturialdean, ahal dugu, behar dogu eta gura dogu parte hartu.

Harpidetu!

Aldizkaria jaso nahi badozu, kontaktatu hemen: nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
tel.: 94 625 06 06

AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA

03

Gernika Jaia Alai frontoia

LEKUKO

06

Arrolako Oppidum-a

KALERIK KALE

08

Ramona jatetxea

SAL TSA-PORRU

10

Saltsa guztietako perrexila

BERDEAN

12

Aqua alta Busturialdean

BETI-JAI

14

Sta. Katalina makailao txapelketa

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA
S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

ARGITARATZAILEA: **NUEVA EUROPA S.M**

Carlos Gangoiti, 15, behea

Gernika-Lumo (Bizkaia)

email: nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

web: www.nuevaeuropa.com

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso du.





GERNIKA JAI ALAI FRONTOIA: “LEKURIK ONENA PELOTARAKO”

Gernika Jai Alai frontoia Secundino Zuazo arkitektu bilbotarrak egin zuena, Bizkaian XX. mendeko arkitektura modernoaren erakusgarria da. 2007ko Docomomo Iberiarraren kongresuan maisu lantzat emon eben. 2014an mende erdi beteta, Eusko Jaurlaritzak Ondasun Kultural aitortu eban balore arkitektonikoagaitik. Aurten Nazioarteko Docomomo Fundazioak nabarmendu dau balore arkitektonikoagaitik.

Lilia Maure Rubio arkitektu madrildarrak Secundino Zuazoren obran adituak, Gernikako frontoiaren defendatzaileak eta Docomomo Fundazioak frontoia aintzat hartzea sustatu ebanak, eraikinaren baloreak aitutzen deuskuz elkarrizketa honetan. Gernika Jai Alairen gainean, “Berriztu edo hil” hitzaldia aurkeztu zenduan 2007ko Docomomo Iberiar Kongresoan.

Zer esan gura dau zuretzat Gernika Jai Alaik?

Bai, 2007ko DOCOMOMO kongresuan, hitzaldiaren helburua eraikinaren barri emotea izan zan, nire ustez, gerra osteko arkitektura modernoaren eredurik garrantzitsuenetako bat da eta gainera, sasoi horretan ezezaguna zan kultura arkitektoniko espainiarrean. Era berean, man-

tentzearen alde egitea eta funtzionamendua eskakizun barrietara egokitzeko beharizana sustatu zan, kongresuaren izenburuak esaten eban moduan “Berriztu edo hil”. Hantxe egon zan aukera arkitektoei erakusteko eta batez be DOCOMOMO fundazioari - Arkitekturaren eta Mobimendu Modernoaren Kontserbazioa eta Dokumentazioa-nazioarteko erakundeari.

Kongresuaren deialdia neurri egokia eta zortea izan zan, hamar urtetan frontoia martxan egoteko gernikarren ahalginei laguntza emoteko. Inportantzia handiko eraikina da Espainian arrazionalismo konstruktiboaren eredurik onena da eta **munduko frontoirik onena pelotan egiteko**, batez be zesta-puntan. Nazioarteko pelotariak dagoenik eta onena dala onartu dabe daukozan baloreak direla eta.



Lilia Maure arkitektuaren hitzaldia Gernika Jai Alai frontoiaren 50.urteurrenaren ekitaldian, 2013an

Non eta zelan hasten da bere historia?

1961ean enkargatu eutsen Secundino Zuazo arkitektu esukaldunari orduko "Gernika espectaculos y turismo Gerestu" elkarteak. Proiektua 1961ean hasi zan eta 1962ko uztailaren 20an izan zan hasierako onarpena. 1963ko uztailaren 29an, urtebete beranduago, inaguratu zen. Zuazok eraikin modernoa baino gehiago gura eban, jokoaren eskakizunetara egokitzea gura eban. Bere nahia, hasiera baten, frontoian pelota jokoaren modalite guztiak izatea zan proiektuaren memorian irakurtzen dan moduan. Zuazok beste frontoi batzuen proiektuak be egin ebazan, baina hauxe izan da mantenuidu dan bakarra. 1935ean proiektua egin eta Madrileko Recoletos Frontoi entzutetsuaren obrak hasi ebazan, Eduardo Torroja injeniarria lagun ebal. 1936an inaguratu zan, baina hilabete gutxitan egon zan pelota jokoa. 1939an frontoi inguruan jausitako bonba baten uhinak heldu bertara eta frontoiaren estalki zilindriko ederra desorekatu egin zan; guda amaitu zanean, bota eta ohiko estalkia ipini eutsen, eraikina 1973an bota eben.

Ordutik dator bigarren frontoi hau mantentzearen beharizana, Espainan **zutik dirauen kirol eraikin modernoen eredia da**. Baldintza arkitektoniko ezin hobeek bermatzen dabe, bideragarritasuna eta Gernikan bete-betean sartu eta erabiltzeko beharra.

DOCOMOMO Fundazioak zer ondorio dakar?

Eraikinaren ezaugarriak ikusita, pelota jokorako zein bestelako kirol jokoetarako erabiltzeko balio dau eta horrek, gaur egun, eraikina sendotzera behartzen gaitu. Horretarako DOCOMOMOren kolaborazioak denboran mantenuidu ahal izatea eta nazioarteko errekonozimendua bermatzen dau. Fundazioa arduratuko da eraikinaren egeeraz eta Jai Alai babesteko lankidetza jarraia bermatuta geratzen da.

Egin daigun berba egilearen gainean, zergatik nabarmendu zan Secundino Zuazo?

Secundino Zuazo Ugalde, Bilbon jaio zan 1887an, **XX.mendean Espainiako arkitekturik esanguratsuena** izan zan. 300 proiektutik gora egin ebazan, nagusienak Madrileko Musika Jauregia, Bilboko Postetxea, Granadako Espainia Bankoa eta pilo bat gune erresidentzial, Madrileko Loreen Etxea eta Bilboko Kontsulatu zinemaren ingurua, besteak beste. Bere nahia erresidentzia-guneak sortu eta hirietako garapen arazoak konpontzea zan eta hainbat proiektu egin ebazan batez be, Trianako Zabalgunea, Zaragozakoa eta Madrileko eta Bartzelonako luzapenak.

Zer ekarri eban Gernika Jai Alai frontoi moduan?

Jai Alai frontoia Rekoletos frontoiaren ondorioa da, 1936koa. Kasu bietan Zuazok ulertu eban frontoiak espazio jarraia sortu behar ebala: jokorako eta ikuslearentzat; konkatenazio zuzena, traba barik eta ahalik eta bisibilitate handienagaz eta argi egokiekaz. Horretarako, kasu bietan, eraikinaren eraikuntzan protagonismo osoa eraikuntza egiturari emon eutsen.

Argi hotza, iparraldetik eta eguzkiaren izpietatik kanpo bilatzen eban eta horrexen arabera ipini ebazan lehoiak, pelotariei eta ikusleei enbarazurik ez egiteko moduan. Jai Alain hasierako argiztapen baldintzak aldatu egin ebezan jokoaren kalterako. Frontoiok aurrekoekaz alderatuz, zutaberik ez euken ondo ikusi eta entzuteko. Rekoletos frontoiaren egitura ganga bikoitza zan, Jai Alain, ostera, arkupe sistema haga ikaragarriekaz. 10 arkupeko egituraz osatzen da eraikina, erdiko 8ak kanporantz zuzenduak, kontrahorma moduan. Holanik, frontoiko edozein lekutik ikusten da dana. Rekoletosen ez, baina Jai ALain Zuazok jokoaren espazioan sartu eban asialdiko espazioa.

Aparteko babesa behar dauan abanguardia arkitektoniko obra.

Frontoia egin zanean kanpoaldean geratzen zan, base-rriz inguratuta eta jende gitxi bizi zan leku ederrean. Gaur egun, ostera, erdi-erdian dago eta etxegintzaren presioa dauko. Inguru guztia galdu dau, kanpoaldekoagaz eukon lotura be bai. Lehen sarrera bi ebazan. Sarrera nagusia

Carlos Gangoiti kaletik eta bestea, San Juan Kaletik etorren oinezkoentzako bidetik. Benetako funtzionaltasuna emoten eutsen eta 1800 jarleku eukozan harmailatan eta 200 palkoan. Gero, sarrera bat izkutuan geratu da, eta lekuak kendu behar izan dira ebakuazio arauak betetzeko. Lastimea, eraikina primerakoa zalako alderdi guztietatik. Beraz, beharrezkoa da aukera egoki bat topatzea hasierako eraikinaren ezaugarriak kaltetu barik eta orduko era-bilera bikaina berreskuratzeko.

Zelakoak izan ziren lanak?

1962ko urtarrilean aurkeztu zan lehen proposamena, Rekoletos frontoiaren antzekoa. 1962ko apirilean aldatzen hasi zen. Palkoak azken solairura igotea erabaki eban eta hotelerako gunea mantendu eban, nahiz eta gero ez egin. Gaur egungoaren antz handia dauko, batez be bolumentean. Espazioaren ulermena da eraikinean deigarriena, baita funtzionaltasuna eta argiztapena be. **Argiak beti kualifikatzen dau espazioa, eta balore hori ederto ekien Zuazok.** Palkoen aldean, hiru gune sortu dira, bihurgunee-kaz goiko aldetik kantxa guztia ikusteko, inork ez galtzeko bisibilitadea.

Goiko solairuan Zuazoren sentsibilitatea eta zorroztasuna nabariak dira. Gizon itzela zan, zehaztasunik txikiena be kontuan hartzen eban, bardin jakon bota eta barriri hastea ez bazan gustora geratzen. **Gernika Jai Alai horrexegatik kontserbatu da, eraikuntzaren kalitateagaitik,** material egokiak aukeratzen ebazalako, egitura ona egin ebalako. Horregaitik irauten dau eta iraungo dau eraikinak. Eta ni neu mantentzearen alde gogor egingo dozuelakoan nago.



Docomomo fundazioaren errekonozimendu plakaren ezarpena

Oppidum

Arrola mendi gailurrean,

Arratzu, Mendata eta Nabarnizen elkargunean, Bigarren Burdin Aroko herrixka gotortuaren aztarnak bisitaria harritzen dabe,

Kantauri Ekialdeko ikusgarriena. Iraganaren arrastoak gordetzen daberen aztarnategi arkeologikoak k.a. II. mendean eduki eben bere loraldia, sarrera nagusietako gotorleku paregabeak eraiki zirenean.

Arrolako Oppidum-a Bizkaian induskatutako aztarnategi arkeologiko zaharrena da. 1827an, Martin Novia Salcedok eta Antonio de Echevarriak krokis topografiko bat egitura-tu ebeen, ondorengo ikerketetarako baliagarria izan zena. Herrixkak, zortzi hektarea dituenak, eta kanpoaldetik beste bost hektareaz osatua, 534metrotako altuera dauko eta k.a. VI eta IV. mendeen artean sortu zen.

Oppidum-a harresi batek babestua dago, kanpo aldean harlangaitz hormaz eta harkaitzean induskatutako zulo batez osatzen zena. Harresiaren Ipar Mendebaldeko atea penintsulako iparraldeko "sarrera gotortuaren" adibide onenetako bat da. Teknikoki, "en esviaje" motatakoa esaten jako, angulo guztietatik babestu daitekeen labirintoa, sarrerako atea ixtean tranpa bat bilaka daitekeena. Hegoaldeko atearen induskaketa proiektua aurtun amaitu da, baliteke ate hau herrixkaren sarrera nagusia izatea.



Urdaibaiko herrixka indigena

Arrolako Oppidum-era bisita gidatua



Bizkaiko lurralde historikoaren historian zehar, bere protagonistek aztarna baliagarri asko utzi deuskuez gure iragana hobeto ezagutzeko.

Arrolako Oppidum-aren kasuan, 2009tik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera, lehengo mailako ondasun kultural honen induskaketa lanak, ikerketak, zaharberritzeak eta balioztatzea eraman dabez aurrera.

Lan honen emaitza “Arrolako Oppidum-a. Urdaibaiko Herrixka indigena” erakusketan ezagutu eta goza daiteke, Arrolako Oppidum-aren Interpretazio Zentroan, Arrolagunen, Arratzun (laster zabalik).

Arrola

Arrolako Oppidum-aren errekreazioa



Herrixkaren barnealdean aurkitu diren etxolak harresiaren barneko hormari atxikiak zeuden eraikuntza sinpleak ziren. Harrizko zokaloen gainean landarez eta buztinez egindako paretak altxatzen ziren, egur eta adarrez eginiko teilatu batek estaliz. Oppidum-eko hegoaldeko zonalde guztia etxolez beteriko kale nagusi bat zen. Iparraldean ezin izan ziren etxolak eraiki, luraren inklinazioagatik eta babesik gabeko zonaldea zelako.

Oppidumaren ondoko hegal batean Bastazar monumentua aurkitzen da, zeina anfiteatro itxura daukan lau harmailak osatzen dabe. Bilera espazio bat da, asanblea politikoetarako erabili zitekeena. Karbono 14-aren datazioak k.a. VI mendetik k.o. I. mendera bitartean kokatzen dau multzoa.

Kalerik Kale



Ramona,

ZAPORE HANDIKO BIHURGUNEA

Artxiboko argazkiak. (J.Ruiz de Velasco)

Lapikoko ederrak, lagun arteko jan osteko egotaldi luze eta alaiak, senitarteko ospakizun gozoak, negozio-bazkariak, bakarrean dastatzeko menuak, horixe baino gehiago egoan gogoratzen dogun jatetxean.



Bere izenaz ezagutzen dogun bihurgunean “zorabiatzeko” moduko jatekoa.

Haren jatekoen zaporea ez da ahaztu, jateko gozoak, ondo eginak, sofistikuak. Beste batzuek jatetxea egoan etxeari izena emoten deuteson mosaikoagaitik dabe ezaguna eta beraz, Sukarrieta eta Busturiak bat egiten daben bihurguneagaitik. “Ramona etxea, 1904tik” berez Busturian baina Sukarrietatik pausu batera. Historia egin dau. Sasoi baten 1970. urtean jausi zan Hotel Pacoren adin berekoa izan zan. Sasoi ederren, gerraren zakarkeriaren eta inondako uholdeen lekuko, enpresari, armadore, udatiar eta herriko familien janarien gozagarri, Sukarrietako uda denborako ospe eta haunditasunaren koprotagonista, Ramona etxeak hainbat gizalditan iraun dau.

Lehenengo Ramonak, gero Petra bere errainak eta ostean, honen alabak Karmele eta Mirenek eta bilobak jarraitu eben. Bilobak ipini eban familiaren oroigarri eta omenezko mosaikoa.

Historiaren lekukoak

Ezagutu ebenek diñoe munduko jatetxerik onenean be Ramonan moduan ez ebela bizkaitar saltsa prestatzen. **“Morroak bizkaitar erara ikusgarriak ziren, legatz frijitua txipiroi saltsagaz bertan asmatu eben, gozoa baino gozoagoa, txipiroiak tintan ezin hobek...Eukezan produktuak be, onenetan onenak ziren. Rapea Bermiotik ekartzen eben ... eta postrerako suflea, ogizko tostadak eta “brazo de gitanoa” gomutatzen dabe bertara joandakoek.**

“Ramona etxean ospatzen ebezan familia askok euren ospakizunak eta jaiak, neure loba baten jaiotza be hantxe egin genduan” diño auzotar batek **“Menuak etxean bertan egiten ebazan, nik ezagutu nebazan oilo trufatuak zelan egiten ebezan bertan...jaki hotzak ez ebezan erosten, egin egiten ebezan, York pernila bertan egosten eben... dana egiten eben jatetxean”**

Julio Ruiz de Velascok “Ruta Histórico- Gráfica de Sukarrieta-Pedernales (1900-2000)” bere liburuan Ramona jatetxearen irudiak eta oroigarriak sartu dauz. Berak be gomuta bereziak gordetzen dauz: **“Jatetxea xumea zan, egurrezko mahaiak eukozan. Lixibadun trapuaz gainetik hainbeste bider erainda, egurraren zuloak be ikusten jakezan. Koadro gorri-zuridun mantelakaz, oso atsegina zan. Eta 100m2ko terraza eukon, orduan gainera ez zen entzuten gaur eguneko autoen joan –etorria, mendiko txoriak baino. Gomutatzen naz jatetxeaz. Neure ezkontza hantxe egin neban”** diño.

Zenbat kontu “Ramona” jatetxean

Plater artean eta eskaratzean bizipenak kontaezinak dira. Kanean bertan egoan jatetxea eta edozelako jendea hartzen eban **“ kanpoko jende asko etortzen zan ez egoalako holako beste jatetxerik inguruetan eta jaiak bereziak ziren. Eibar, Gasteiz, Bilbo, Neguri...edonondik etortzen ziren. Tratua be ederra zan, Karmele esate baterako, eskaratzeetik urten eta mahirik mahi joaten zan”**

“Las Sacas” (Patricio P. Escobal) liburuan be agertzen dira Sukarrietaren aipamenak 1937an eta Ramona be bai... **“Itsako jende harentzat ohiturea zan arrantza denboraldia, sardina, atun... sasoiak amaituta, bonoak eta irabaziak banatzeko Ramona tabernan bazkari bat egitea. Ikaragarrizko banketea egiten eben, orduak eta orduak emoten ebezan kontu kontari alai”.**

Bihurguneko toki horrek zaporea ona eta gomuta hobea itxi ebazan.

* Sukarrieta da herriaren izen ofiziala, lehen Pedernales izenagaz ezaguna.

Saltsa-Porru

SALTSA GUZTIETA PERREX

PERREXILA ortuan, lorategian, bide ertzetan, edozein lekutan hazten da. Bedar usaintsu eta freskoa, 2000 urtetik gorakoa eta makina bat propietate daukona, munduko gastronomian ezinbesteko elementua da. Gure **"SALTSA BERDEA"** da bere leku nagusia.



Euskadin geure-geureak doguzan kokotxak eta legatza saltsa berdean edo itsaszapo eta besiguari ganetik botateko olio errean ipintzeko erabiltzen dogu. Baina edozein saltsatan, ozpin-oliotan, arrainekaz, haragi zuri edo gorriekaz, itsaskiekaz edo barazkiekaz erabili leike Gordinik platerak dotore txukundu doguz perrexilegaz.

Fresko zein lehortuta erabiltzen da. Baina fresko janda hartzen dira daukozan kalitate gastronomiko guztiak. Kolore berde disdiratsu bizia izan behar dau. Fresko mantenduteko urez bete poto bat limoi tanta batzuk edo ozpina bota eta hantxe sartuko dogu; ura sarri aldatu behar da. Perrexilaren zaporea eta propietate guztiak kontserbatzeko beste modu bat izoztea da, zati txikitxutan moztu eta lau bost hilabetetan ondo mantentzen da.

KO KILA

“Erein perrexila maiatzean eta urte osorako izango dozu”

Udaberria eta uda dira sasoirik onenak ereiteko, baina urte guztian erein leike. Erein aurretik 24 orduetan hazia beratzen eukitea komeni da. Lur azalean erein. Lur mota guztietan hazten da ez badira oso bustintsuak edo azidoak.

Osasunerako mesedegarria dala antzinatik da jakina.

Carlomagno enperadorreak be agindua emon eban euren lurretan *“petroselinum”* ereiteko. Perrexilaren hostoek A, B1, B2, C eta D bitamina ugari dauke. Likido erretentzioaren kontra eta giltzurrunak garbitzeko ona da. Perrexil ura diuretiko lez erabili ahal da, Cherokee indioek moduan.

Alde kaltegarrietan abortu eragilea dala esaten da; beraz haurdun dagozenek ugari hartzea ez da komeni.

Perrexilaren propietateak:

Antioxidatzailea da: azala gaztetzen dau.

Mineral ugari daukoz, kaltzioa, fosforoa, burdina eta azufrea. Betakarotenoa dauko.

Klorofilan aberatsa: ahoko hatsaren kontra eta gorputzeko toxinak eta gehiegizko koipea garbitzeko balio dau.

Bitamina C ugari dauko: minbizia, bihotzeko arazoak, kataratak eta zornadurak prebenitzeko, eta sistema inmunea indartzen dau.



Kaltzioan aberatsa, osteoporosia prebenitzeko edo aurre egiteko eta menopausian. Ona da ume eta kirolarientzat.

Ilea eta atzazalak **sendotzen dauz.**

Orbantzen laguntzen dau.

Diuretiko da.

AQUA ALTA BUSTURIAL DEAN

Urdaibai da Penintsularen iparraldeko kostaldean Biosfera Erreserba bakarra eta EAEn lehenengo espazio natural babestua. Okaren estuarioa, marea-artekeko %70eko azalera gaz, beharrezko gunea da fauna eta flora aberatsa izateko eta bertako populazioarentzat. Aldaketa klimatikoak mehatxua da, batez be, itsasoa jotzen dagozan herrietzat.

Horrexen gainean egin dogu berba **Guillem Chustegaz, Ozeanoetan eta Itsasertzean Aldaketa Klimatikoaren Aplikazio Arloaren Arduraduna. AZTIko Itsas ikerkuntza Unitatea.**

AZTI-Tecnaliak egindako ikerketan agerian geratzen da aldaketa klimatikoak dala eta datozen urteetan itsas maila igoko dala.

Itsasoaren beroketak hedatze termikoa eragiten dau eta itsas maila igo egiten da eta horri glaziar eta kasko polarrak urtetik datorren ura gehitu behar jako. Euskal Itsasertzean XX.mendearen bigarren erdian urteko 2 mm igo da, ma-



Erreka hegaletik doan bidea

reografoekaz, sateliteekaz eta Erregistro paleoekologikokaz egiaztatu da. Mende amaierarako iragarpenek Bizkaiko Golkoan itsas mailaren gorakada metro erdikoa izango dala mende hasieran agertzen dabe.

Zer eragin izango dau gure kostaldean? Zelan kalkulatzeko da?

Gaur egungo hondartzen zabaleraren %34 eta %100 arteko atzerapena eragingo lekuo, itsasertzaren 250 bat hektarea, horreetatik %45 urbanizagarriak, eta muturreko olatuek eragindako kalte gehiago be bai. Kalkulua hogei bat eredu ozeano-atmosferikoen batez bestekotik atara da, ur zutabearen hedatze termikoa sartuta eta urtzeengaitik itsasoaren bolumena haunditu dana gehituta.

Urdaibain eta Euskadin planetakoaren aldean egoera desberdina da?

Itsas maila igotean, paduren, hezeguneen eta fanerogameen (itsasoan bizitzera egokositutako landareak) erantzun naturala, estuariaren barruranzko migrazioa da eta hori, hesi artifiziai eta naturalak galazoten dabe askotan. Estuarioko espezien ahulezia handiagoa izango litzateke aldaketako ingurumen faktoreen alkarekintzagaitik, euren habitata murriztu edo apurtzeko arriskuan legozke eta.

Paduren mailaren gorakada naturala, sedimentazioz, itsas mailaren egoera ertainari aurre egiteko beharrezkoa izan leiteke.

Itsaso ondoan dagozan herrietan zer eragin izango lekuo?

Aurrikuspenak kontuan izanda, beldurgarrienak be bai, ez da barruntatzen eragin handirik inguru urbanizatueta, ez bada gune jakinetan (espigoiak, edo itsas-pasioak) olatu handien eta itsas maila igotea batera doazelako. Baina itsasertzean sartutako hondartza sartu batzuetan, berezkoak edo artifiziaiak, bai.

Urdaibain zein herri edo inguruk izango lekuo eraginik handiena eta zelan?

Estuariko ekosistema batzuetan salbu, padura edo itsas zelaietan, Laidako hondartza izango litzateke kaltetuena, estuarioaren kanpoaldean dagoalako eta etorkizunean mareen korrontearen abiada handituko dan lekuan dagoalako. Laga oster, ohiko dunen sistema eta begetazioa zati bat izatean, Bizkaiko kostaldean, higadurak, erosioak, kalterik gitxien egingo deutsona izango dala pentsatzen da.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren biodibertsitatean zer eragin izango lekuo?

Itsas maila igoteak gaur egungo "komunitateetan" erantzuna ekarriko dau, hau da, barrurantz migratuko dabe eta dauken zabalera txikiagotuko da. Baina badagoz beste eragin batzuk be, itsasoaren berotzea da bat, 1,5°tik 3,5°rainokoa izan leiteke mende amaierarako, horren ondorioa espezie populazioak desplazatzea eta erasotzaileak sartzea da. 1980tik itsas azala berotzen ari da Bizkaiko Golkoan.

Gure jarduera ekonomikoak be kaltetuko litzatekez?

Atlantikoan itsasoa berotzeak itsas baliabideen ustiaketan izango dau zer ikusia, esate baterako, espezie populazioak iparralderantz joatea (berdelaren arrautza ipintzean ikusi dogun moduan edo beste batzuetan), taila txikiagotu, desaklopamendu trofikoak eta espezie inbaditzaileen zabaltzea. Ondorioz, plataforma kontinental frantseseko zooplankton biomasa gitxitzea aurrikusten da eta Golkoan, oster, haunditzea. Inguru bion balantze garbiak, ondino dudazkoa izan arren, Golkoko arrantzarako espezien bilakaeran izandako eragina zehaztuko dau.



Laidako hondartzaren itxura itsasgoran

Sasoiz gabiltza neurriak eta erabagiak hartzeko eta urtenbideak topetako?

Bai inok ez dakiazan kalteak ekarriko dauazan aldaketa klimatikoari aurre egiteko garaiz gagoz. Negutegi efektua sortzen daben isuriak murriztu behar doguz, energia berriagarriak erabili eta eraginkortasun energetikoa handitu. Soluzioak maila globalean zein herrian ezarri behar dira eta gizartean zein gizabanakoengan.

Herrian etorkizuneko kalteak txikiagotzeko aldaketa klimatikora egokitzeko neurriak proposatu eta ezarri leitezke. Esaterako, hondartzetan ez da behar hesi artifiziai, hondartzek eta hondar depositoei atzerantz egitea edo galtzea galazoten dauan garraio sedimentario naturala mantentzeko. Inguru naturaletan urbanizatzea mugatu, inguru kaltetuak barriztu eta habitat guztiak babestea eta batzea lortu beharko litzateke egoera latzak menderatzeko eta aldaketetan, egokitzapen naturala izan dagien. Ingurune fisiko naturala eta itsasertzeko biodibertsitatearen ondasunak eta zerbitzuak mermatzen dabezan presioak gutxitu beharko geunkez. Eta inguru urbanizatueta higadura eta uholdeen kontrako azpiegiturak sendotu edo ipini egin behar dira.

Berakatz olioa eta... Makailaoa

MUNDAKAKO MAKILAO

pil-pilean lehiaketa

tradizioa, gastronomia eta jaia da. Sukaldariek, onenak izan nahian, sukaldatzeko artea erakusten deuskue. Ospe handiko jarduera da eta bisitari asko erakartzen dau.



2015eko irabazleak





Epaileak makailaoa dastatuz



Kazolak puntuatzeko momentua

Herriko txokoek eta koadrilek 31 urte daramate alkarren lehian makailao pil-pilean kazolararik onena nork atera. Itxura, zapo-rea eta makailaoaren puntua saritzen dabez epaile ahofinek mokadutxua dastatuz.

Txapelketaren arauak ezartzen dabe parte hartzaileak, txokoak, taldeak edo herriko jende partikularra izango direla, baina sukaldari bi baino ez inskripzioko.

Makailaoa, olioia eta berakatza dira osagai bakarrak; makailao pil-pilean prestatzeko benetako funtsak. Modu tradizionalen egin behar izaten da eta guztia tokian bertan prestatuta. Irabazlearen txapela:

Sukaldeko txotorik onena!



GOIZ HANDIA

Norgehiagoka Udaletxeko arkupetan izaten da, egun horretan bat-bateko eskaratzak bihurtzen dira, izan ere, azaroaren 25aren inguruan eguraldiak lagunduko dauen ez dago jakiterik. Goizeko 10etan hasten da mobimentua, hara-honakoa, suak biztu eta makailaoaren

prestaketa. Eguerdian, giro ederrean, agintariak koadernoia eta boligrafoa eskuan, zeremoniaren buru izaten dira eta dozenaka kazulararen emaitza gastronomikoak sailkatzen laguntzen dabe. Behar gatxa izaten da. Herri guztiaren aurrean burutzen da, danak egoten dira zain nork irabaziko. Sari banaketaren ostean, txokoetara eroaten dabez eta koadrilla bakotxak dastatzen dauz, parte hartzaileen gorabeheren gainean berba eginaz giro ederrean ematen dute eguna.

Sukaldaritza txapelketa honek Santa Katalina jaiak animatzen dauz, baina lehengo Arrantzaleen Kofradiari egiten jakon omenaldi antzekoa be bada; Kofradiakoek euren batzarrak Santa Katalina basilizan burutzen ebezelako. Leku ederra inon bada eta estratejiko, errekaen sartu-urtena menperatzen da bertatik.



Arotz

EGURRAREN IBILBIDE TURISTIKOA

Aisialdi osasuntsuko eta "izpiritu
jasangarriko" bisita naturalak eta kulturalak.
Familian, bikotearekin, lagunekin...urte
guztian zehar

.....
Erreserbak: visiturdaibai@nuevaeuropa.com

Tel. 94 625 06 06 - 634243762 / www.visiturdaibai.com



Bizkaia

Zer ideia ona!
nueva europa
EKIMEN TURISTIKOAK